

GUKA Ostirala, 2026ko abuztuaren 7a

azkoitiaguka.eus

AZKOITIA

GUKA

KOLOREZ PIZTUTAKO ANDREMARIAK



AZKOITIA
Udala

www.azkoitia.eus



ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!

GUKA KIDE

abantailak



Papereko argitalpenak etxean, Gukakide digitalak izan ezik.



Argitalpenak **digitalki** eskuragarri.



Guka **aplikazioan** bazkideentzako txokoa.



Zozketak eta **lehiaketak**.



Deskontu sarea.



Argazkiak eta **bideoak** deskargatzeko aukera.

Egin zaitez GUKAKIDE

54€
urtean

IZAN
GUKAKIDE
sarean



62€
urtean

IZAN
GUKAKIDE
herrian



98€
urtean

IZAN
GUKAKIDE
eskualdean



Papereko eskaintzek digitala barne dute.



Ion Elorza

Intentzio txarrik gabe



Ama nahi dezunian, jokaizu loterixe..." Urte osoa egun horren zain egoten naiz. Egia esan, abuztuaren 19an ez dugu gauza bera esaten: "Amaitu dira andremaixek?". Eta, bestalde, eskerrak amaitu diren, bestela... kar-kar-kar.

Gaztea edo umea nintzenean, gurasoeekin kanpora joaten nintzen abuztua pasatzera, baina 16 urterekin, festa zer zen jakin nuenetik, ez dut sekula Andre Maria festetan huts egin. Oporretara joaten naiz edo saiatzen gara behintzat, baina andre-marietarako, beti, herrian egon behar izaten dut.

Andre Maria bezpera, txupinazo eguna, egun potentea dela esango nuke; gorputza fresko oraindik, eta indarrare-

kin. Lagunekin elkartu, poteo-txoa egin, bazkaldu, segi poteatzen, abestu, kontzertuak ikusi -bai plazan, bai txosnetan-, dantza egin, eta betikoa, "ahal dunak ahal duna", bestela... Ederra eguna!

Abuztuaren 15a, Andre Maria eguna ere ederra, oso ederra, ikaragarria. Aurreneko eguneko txoro haizearekin oraindik, bazkaldu, pilotalekura joan, poteatu, eta nola ez, plazan asko maite ditugun film laburrak ikusi eta gozatu. Film laburrak niretzako eta gure kuadrillakoentzako oso bereziak izan dira urte askoan. Askok eman digu egun horrek, eta arriskatzeko naiz esatera, eman ere eman dugula pixka bat. Orain gazteen ordua da! Animatu film labu-

rrak egitera! Ederra izaten da plazan sortzen den giro hori. *

Abuztuaren 14a eta 15a maite ditut gehien. 16an kontzertu potentea egon ohi da, eta giro polita sortzen da. 17a batzuentzat biharamun eguna, baina ezin dugu ahaztu Baserritar Eguna izaten dela. Gora baserritarrek! Eta 18a egun berezia da denontzat: erdi moztortuta denok leloago ibiltzen garela inork ezin du uka.

16 urterekin festa zer zen jakin nuenetik, ez dut huts egin sekula andremarietan

Andremariak ondo pasatzeko dira. Uste dut denon helburua ondo pasatzea dela. Horrelako hitzak esateko egunak ere bada: "Bua earra egune", "kaña preskue earki sartzeaba", "fao-rez", "eskerrik asko", "barkau", "matte zattut" eta abar. A! Ta...: "Hoi ondue!".

Batzuetan edalontziko izotzak ez digu laguntzen eta gauza batzuk ez ditugu nahi bezain ondo egingo, baina intentzio txarrik gabe.

Pena txiki bat ere badut. Ez dakit pena edo beldurra den. Gaur egun geroz eta jende gehiagok egiten du antza: lehenengo bi egun festetan pasatu eta gero kanpora oporretara joan. Agian bi egun nahikoa dira festa egiteko, baina niri, benetan, pena ematen dit. Eta

agian urteren batean neu izango naiz kanpora joango dena, baina esan beharra neukan. Azkenean, egun guztiek dute bere xarma. Baina biharamunak askotan indar gehiegi izaten du; ulertzen zaituztet, pasatzen da.

Bukatzeke, eskerrak eman nahi dizkiet andremarietan eta urte osoan boluntario lanetan ibiltzen diren guzti-guztiei, musu-truk, herritarrok ondo pasatzeko egiten duten lan guztiagatik. Eta AGAkoei, nola ez, eskerrak, txosnak eta txosnetako egitaraua antolatzeagatik.

*"Ana nahi dezunian soltaizu karterie, zergatik nahi dugu-lako, Misillentzat Misillentzat aterpie!"

Ondo pasau andremaixek!





Miele-ren diseinua eta teknologia Milar Larramendi-n.

Ondo pasau andramaixek!

Julio Urkixo, 16
20720 Azkoitia - Gipuzkoa
Tel.: 943 851 897

Azkoiti-Azpeitiko Banatzaile Ofiziala:







Gora andramaixek!

Ana Azkoitia, Azkoitiko alkatea

Azkenaldian dena zeharo azkar eraldatzen ari den sentipena dut. Gizakiok aldaketak asimilatze-ko dugun gaitasuna eta horretarako behar dugun den-bora baino abiadura azkarragoan bizi gara. Pertzepzio horrek izango du adinarekin ere lotura. Kontuak kontu, gauzak, ingurua, mundua izugarri aldatzen ari diren bitartean, pertsonontzat oinarritzkoa denak oinarritzkoa izaten jarraitzen du. Festetako argazkiek esaten didate gauza batzuk ez direla sekula aldatuko. Lehenengo parranda eta azkenengo gaua, la-gunarteaz goatzeko grina edo konpainia falta, neurritz kanpo-ko jan-edana, txupinazoko zirrara, taberna zuloko iluntasuna eta kaleko bizipoza, zeozer bilatu nahia eta zeozer aurkitzeko esperantza.

Ez dut esango festek bizitza aldatzen dutenik. Emozio iturri dira, ordea. Poz beharrean dagoenarentzat, asetzeko bide. Eta gauza guztiek bezala, herriko jaiek ere bi alderdi dituzte. Batzuek Andre Maria jaiez gozatzen duten bitartean, beste asko eta asko lanean aritzen dira. Ostalariak, kale garbitzaileak, udaltzainak, Gurutze Gorriko boluntarioak, komunikabi-deetako kazetariak, barraketako langileak, Musika Bandako eta Txalkor txistulari taldeko kideak, erraldoien eramaileak eta buruhandiak, eta finean, festetako egitarauaren baitan antolatzen diren edozein ekintzen atzean dauden gizonak eta emakumeak. Haiek gabe, ez dago festarik. Bidezkoa da, beraz, eskerrak ematea.

Eta zuek gabe ere ez dago festarik. Festak benetako festa izateko herritarrak behar ditu. Jaiez goatzera kalera aterako diren haurrak, gazteak eta helduak. Ondo pasatzeko eta on-dokoei ondo pasarazteko gogotsu dauden herritarrak. Festak errespetu osoz biziko dituzten herritarrak. Gorrototik, ma-txismotik eta indarkeriatik urrun. Umorea eta giro ona nahi ditugu.

Dantzatu oinak mindu arte. Egin barre lehertu arte. Bizi kale giroa loak hartu arte. Eta gozatu aurtengo andramaixek agur-tzea tokatzen den arte.

Gora bihotzak! Gora Azkoitti! Gora andramaixek!



Plaza jendez leporaino, lazko txupinazoan.

AGENDA

Abuztuak 13, osteguna

20:00. Jose Luis Frantzesena organo jotzailearen ome-nezko kontzertua parrokian, Mariatxen Urkia sopranoaren, Txalkor txistulari taldearen eta Sahatsa dantza taldearen parte hartzearekin, Musika Hamabos-taldiaren barruan.

Abuztuak 14, ostirala

12:00. Andremarien hasierako txupinazoa, plazan, Sahatsa dantza taldeko kideen eskutik. Musika Bandak *Ondo pasau andramaixek* joko du, eta gero, *Azkoitia* abestuko dute Parrokiako Abesbatzak eta Iraurgi abesbatzak, Musika Bandaren laguntzarekin.

12:30. Azkoitiko, Txantreako eta Buztintxuriko erraldioen eta buruhandien kalejira.

17:00. Haur parkea, Balda plazan.

17:00. Gazte parkea, Elkargune-ko goiko zelaian.

19:00. Deladar txaranga, kalez kale.

19:50. Udal ordezkariak korporazioan joango dira parrokiara, Txalkor txistulari taldeak lagunduta, *Alkate soinu*a-ren doinupean.

20:00. Herritarrek Ignacio Busca Sagastizabalen *Salbea* eta Aita Nemesio Otañoren *Ave Maria* abestuko dituzte parrokian, zazpi eta bost ahotsetara, hurrenez hurren.

23:00. Janus Lester abeslariaren kontzertua, herriko plazan.

23:30etik 02:30era. Drogen kontsumoak eragiten dituen arriskuak saihesteko nahiz

murritzeko eta genero erasoen aurkako babesgune zerbitzuak, parrokiaren aurrean.

Abuztuak 15, larunbata

09:30. Zubiondo gaiteroen kalejira.

10:00. Udal Musika Bandaren eta Txalkor txistulari taldearen kalejirak.

10:50. Udal ordezkariak korporazioan joango dira parrokiara, Txalkor txistulari taldeak eta Musika Bandak lagunduta, *Alkate soinu*a-ren doinupean.

11:00. Meza nagusia.

12:00. Erraldioen eta buruhandien kalejira, Zubiondo gaiteroekin.

13:00. Udal Musika Bandaren eta Txalkor txistulari taldearen kontzertua, Kontzejupean.

17:00. Pilota partidak, Gurea pilotalekuan. Caixabank Masters Txapelketako partida jokatu

dute Altuna III.ak eta Imazek Larrazabalen eta Zabaletaren kontra, eta Muruak eta Imazek Amianoren eta Gabirondoren aurka.

17:30. Egurrezko jokoak Iku-rriñaren plazan, Txiki Chef herriko plazan eta karaokea Azoka Plazan.

19:00. Magia poteoa.

19:30. Muxikoak, Balda plazan, Patxi eta Konpainiarekin.

20:00. Azkoitiko gimnastika erritmiko taldearen erakustaldia, parrokiaren aurrean.

22:00. Film Laburren XIV.

Lehiaketako lanen emanaldia eta sari banaketa, plazan. Aurtengo gaia *sekretua* da.

Ondoren, La Reina del Pop taldearen kontzertua, plazan.

Abuztuak 16, igandea

09:30. Zubiondo gaiteroen kalejira.

10:00. Txalkor txistulari taldearen kalejira.

10:50. Udal ordezkarien korporazioa Andre Mariaren Zeru-ratzearen parrokiara, Txalkor txistulari taldeak lagunduta, *Alkate soinu*a-ren doinupean.

11:00. Meza nagusia.

11:30. Erraldioen eta buruhandien kalejira.

12:15. Aureskua, plazan.

13:00. Udal Musika Bandaren eta Zubiondo gaiteroen kontzertua, Kontzejupean.

16:00. Ur parkea, Balda plazan.

19:00. Emakumeen 16. Euskal Herria Kopako finalerdia Realaren eta Eibarren lehen taldeekin, Txerloia futbol zelaian.

19:00. *Freshcool* ikuskizuna, eliz atarian, Tio Teronen Se-meak konpainiaren eskutik.

21:15. Sukena taldearen kontzertua, herriko plazan.

subway
English academy

**Ondo pasau
andramaixek!**



📞 635 75 04 61 ✉️ subwayenglish1993@gmail.com



GAZTE ASANBLADAREN EGITARUA

Abuztuak 14, ostirala

11:00. Txupinazo alternatiboa, San Martindik.
11:30. Plazara jaitsiera, trikitilariekin.
12:00. Karropoteoa.
17:00. DJ *pintxada*: Imuntzo B2B Matxo,,Kintana, Albi, Anti X eta Murxi B2B Galdo.

Abuztuak 15, larunbata

00:30. Lepue zapaldu taldearen kontzertua.
01:30. Yakovlev 42 taldearen kontzertua.

Abuztuak 16, igandea

Gazte Eguna, jantzi ezazu Azkoitiko Gazte Asanbladaren kamiseta.
12:30. Bermuteo musikatua.
14:30. Gazte bazkaria.
16:30. La Ruina ikuskizuna.
18:00. Elektrokela elektrotxaranga.
01:00. GZKL eta Lurrikara taldearen kontzertua.
02:00. Txumba DJa.

Abuztuak 17, astelehena

17:00. Mus txapelketa, izena emateko epea 16:00etan zabalduko da.

Abuztuak 18, asteartea

23:00. Lukiek taldearen kontzertua.
00:00. Aibofobia taldearen kontzertua.
01:00. *Playlist* irekia.

(Egitarau honek aldaketak izan ditzazke; eguneratutako informazioa @azkoitiko_ga Instagram kontuan)

23:00. Suzko erroberak, Vulcano etxearen eskutik.
23:30. Bengo abeslariaren kontzertua, plazan.
23:30etik 02:30era. Drogen kontsumoak eragiten dituen arriskuak saihesteko nahiz murrizteko zerbitzua eta Gune Morea, parrokiaren aurrean.

Abuztuak 17, astelehena

09:00etatik 10:00etara. Azkoitiko Kultur Elkartearen 43. Inazio Iriarte margo lehiaketarako zigilu jartzea, Portaleburu erakusketa aretoan.
09:30. Herriko trikitilarien eta dultzaineroen kalejira.
09:30. Gipuzkoako I. Mendiko Zaldi eta Behorren Txapelketa, Plazaberrin.
11:00. Herriko trikitilari gazteen kalejira.
11:30. Bizijolas, Gaztaneneako parke estalian.

12:00. Erraldioen eta buruhandien kalejira, Txalkor txistulari taldeak lagunduta.
12:00. Herri kirolen jaialdia, plazan.
12:30. Jubilatuen meza, parrokian.
14:30. Jubilatuen bazkaria, Elkargunea eraikineko Herriko Plaza aretoan. Bertan, aurten 90 urte betetzen dituzten herritarrak omenduko dituzte.
16:00. Bizijolas, Gaztaneneako parke estalian.
17:30. Zezen txikiak eta poniak, Trenbidearen Zumardian.
18:00. Bikote Helduen Dantza Txapelketa, Balda plazan.
18:30. Pontx pailazoa, herriko plazan.
19:30. 43. Inazio Iriarte margo lehiaketaren sari banaketa, Portaleburun.
22:00. Enaitz eta Erkizia bikoitearen erromeria, Balda plazan.

23:00. Suzko zezena, Balda plazan.
Ondoren, Erromeriak jarraituko du.


Abuztuak 18, asteartea

11:00. Kaleko atletismo erakustaldia.
12:00. UKO3 txaranga, herrian zehar.
14:30. Herri bazkaria, plazan.
16:30. Skapaie elektrotxaranga, kaleetan.
17:30. Apar festa, Balda plazan.
18:30. Zezenak, Plazaberrin.
19:30. UKO3 txaranga, herrian zehar.
21:30. Txapela Brava taldearen kontzertua, plazan.
Ondoren, suzko zezena ikuskiuna, herriko plazan.
21:30etik 00:30era. Drogen kontsumoa murrizteko zerbitzua eta Gune Morea, parrokiaren aurrean.

ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!

Ugarte industrialdea, 54 - AZKOITIA - 943-85 11 59
info@laguipuzcoana.eus - www.laguipuzcoana.eus

688 62 51 86
 La Guipuzcoana
 la.guipuzcoana



ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!

Aingeru kalea 5 - 20720 Azkoitia
943-54 08 86-669 41 40 25
deko@beatrizpozo.com



Elkartasuna saritzen duen tonbola

Andremariak iristearekin batera, Azkoitia kolorez, musikaz eta jendez betetzen da. Eta urtez urte, bada hutsik egiten ez duen egitasmo bat: Caritasen tonbola. Sei hamarkada baino gehiago daramatza martxan, eta dozenaka boluntarioren lanari eta herritarren parte hartzeari esker, han bildutako dirua egoera zaurgarrian dauden pertsonen eta familien beharrei erantzuteko erabiltzen dute. Jai giroan, elkartasunak ere badu lekua Azkoitian.

Ondo pasau
andramaixek!



ALBERDI
INMOBILIARIA - ASESORIA

943 16 98 78

www.alberdi-inmobiliaria.com

943 85 25 14

www.alberdi-asesoria.com

Trenbidearen Zumardia, 3. AZKOITIA



DISEINU ETA INPRIMATZEA
gure kontu!

ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!!

Inazio Iriarte, 1 | 943 85 20 52 | fk@fkgraf.com



MAPFRE
AZKOITIA

JOAQUIN eta
IGOR ISUSQUIZA

ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!

Julio Urkixo, 20 - 20720 AZKOITIA
943-85 14 61 • isusqui@mapfre.com




Iziaz
ARRAINDEGIA

943-85 25 59
Ibai-Ondo kalea, 24
20720 Azkoitia

ondo pasau andramaixek!



MONTAJES
LAIZOLA S.L.
AROTZERIA METALIKOA

ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!

Ugarte Industrialdea, 23, Azkoitia • Tel.: 943-85 20 12 - 943-85 33 75



Ezkerretik hasita, Tere Aranbarri, Juan Luis Uria eta Mari Pura Aranbarri, tonbolan.

Azkoitiko Caritas parrokiaren inguruan antolatutako boluntario talde gisa sortu zen, gerraosteko urteetako premia sozialei erantzuteko. Garai hartan, Euskal Herriko herri askotan bezala, parrokiak ziren laguntza sozialaren ardatz nagusiak, eta Caritasen tokiko taldeak pixkanaka eratzen hasi ziren. Hasierako jarduera nagusia premia larrienean zeuden familiei laguntza ematea izan zen: janaria, arropa eta oinarrizko baliabideak banatzen zituzten, betiere boluntarioen eta herritarren elkartasunari esker.

Hala ere, azken urteetan behintzat, Caritasen ekimenik ezagunena Andre Maria jaieta-

ko tonbola bihurtu da. Tonbola horrek 60 urte baino gehiagoko ibilbidea du, eta handik ateratako dirua herriko eta inguruko premia sozialak artatzeko erabiltzen dute. Tonbolaren ibilbidearen berri ondo dakite Tere Aranbarrik eta Mari Pura Aranbarrik, duela 60 urte baino gehiago hartu baitzuten Caritasen tonbolaren ardura: "80 urte ditugu eta 18 urterekin hasi ginen!".

Urte haietan azpeitiarrekin batera antolatzen zuten tonbola; lehenbizi, saninazioetan jartzen zuten, eta ondoren, abuztuan, andremarietan. "Azpeitiko Mayordomokoek kamioia zuten, eta haiek ekartzen zituzten posturako txabola eta produktuak", ekarri du gogora Mari Purak. Txabola hura herriko txoko desberdinetan ko-

katu izan zuten, besteak beste, Kontzejupean, Presalde aurrean edota Ikurriñaren plazan: "Azken horretan ikaragarritzko hotza pasatzen genuen, urtero-urtero eztarria itxita bukatzen genuen".

Urte gutxira, txabola erre zuten santioetan, eta, beraz, leku finko baten bila hasi ziren. "Lehenbiziko urteetan Plaza-berriko Aldalurrenean egon ginen; lekuri onena. San Roke egunerako dena salduta izaten genuen". 2005. urtean, ordea, eraikina eraisteko agindua eman zuten eta handik atera zituzten. Harrezkero, parrokiaren lokalean daude.

Ondo antolatuta

Tonbolan askotariko sariak banatzen dituzte, eta produktu gehienak Tuteratik (Nafarroa)



Egunkari
eraikuntzak

ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!



ekartzen dituztela azaldu dute. "Garai batean Donostian erosten genituen produktuak, baina gaur egun Tuterara joaten gara eta handik ekartzen ditugu", dio Terek. Hobetzeko asmoz, urte batean Iruñean gelditu zinen Tuteratik bueltan, eta hango tonbolan jokatu zuten. "Horrek begiak ireki zizkigun, izan ere, taberna batean bi pertsonarentzako otordua egokitu zitzaigun. Azkoitira ekarri genezakeen zerbait zela pentsatu genuen". Esan eta egin, Orbela tabernako Luisekin jarri ziren harremanetan, eta hark hartu zuen herriko taberna eta jatetxeekin hitz egiteko ardura: "Orain, ogitartekoak, afariak eta tragoak ere banatzen ditugu saritan herriko taberne eskainita".

Banatuko dituzten sariak erosita, hurrengo pausoak txartelak egitea eta sariak antolatzea eizaten dira. "Hamabi sorta egiten ditugu, eta sorta bakoitzean sari berdinak sartzen ditugu. Hala, egunero sariak daudela eta egunero sariak orekatuta banatzen direla ziurtatzen dugu". Aurten, gainera, sari gehiago izango dira banatzeko, izan ere, kide berriak "indartsu" sartu dira tonbolaren antolakuntzan, eta "orain arte, herriko 40 dendaratara joaten baginen laguntza eske, aurten 100 ingururen ateak jo ditugu, eta oso harrera ona jaso dugu", azaldu du Juan Luis Uriak.

Harrera on hori ez ddute jaso saltoki eta tabernen aldetik soilik, herritarren aldetik jasotzen duten babesare ere "oso beroa"

dela diote kideek: "Eskertzekoa da izaten dugun erantzuna, oso ona izaten baita, eta urtero saltzen ditugu tonbolako txartel guztiak. Gehienetan, gainera, azken egunerako txartelak gabe gelditzen gara; abuztuaren 17an agortzen dira 35.500 txartelak. Horrek urtez urte lanean jarraitzeko indarrak ematen dizkigu".

Tonbolan ateratzen den sari bakoitzak irabazle bat du. Baina, sariaren atzean, beste irabazle batzuk ere badaude: jasotako diruari esker laguntza behar duten pertsonak. Horregatik, 60 urte baino gehiago igaro diren arren, Caritasen tonbolak ez du zortea ona soilik banatzen; elkartasuna ereiten jarraitzen du.

Izan ere, tonbolako txartelak agortuta lortzen duten diruarekin, Caritasen oinarritzko lehentasunari aurre egiteko gai izaten dira ondoren: zaurgarritasun egoeran dauden herritarrei laguntzea. Horretarako, urrian bilera bat egiten dute eta hor zehazten dute zenbateko irabazia izan duten, eta nora bideratu nahi duten dirua. Hala, diruaren zatirik handiena Azkoitiko norbanakoak edo taldeak laguntzeko erabiltzen den arren, azken urteetan nazioartean ere eskaini izan dute laguntza. Adibidez, Gazara, Valentzia (Herrialde Katalana) eta Malira bidali dute diruaren zati bat. "Aurtengo egoera ikusita, eta Venezuelan gertatu denaren ondoren, laguntza bidaliko dugula uste dut. Guk herrialde bakoitzeko Caritasek bidaltzen dugu dirua, beraz,

ziur gaude diru hori iritsiko dela eta ondo erabiliko dela", gaineratu du Uriak.

Beharrezkoa

Sei hamarkada baino gehiago daramatza martxan tonbolak, eta haren arduradunek argi dute abuztuko festak asko aldatuko liratekeela Plazaberrin kokatzen duten tonbolarik gabe: "Oso desberdinak izango ziren festak, eta gainera, tonbola beharrezkoa dela ere askotan esan digute herritarrak".

Tonbolak aurrera jarraituko badu, batzuen lanari eta ahalginiari esker izango da, eta oraingoz, bada horretarako prest dagoen jendea, aurretik jardun zirenak ahaztu gabe, noski.; besteak beste, Luis Arregi, Luis Mari Azpiazu, Luis Elorza eta Luis Larrañaga besteak beste. "Tonbolarik gabe festak ez lirateke berdinak izango, baina horiek gabe, Caritas ez litzateke berdina izango. Horiek, eta beste hainbatek egin duten lana oso garrantzitsua izan da elkartearantz", gogoratu nahi izan dute.

Urte luzez musu truk aritu diren boluntarioen lanari eta herritarren babesari esker iritsi da Caritasen tonbola gaurdainoko bidea egitera, belau-naldi batek besteari lekukoa emanda, beti helburu berearekin: premia duenari laguntzea. Horregatik, Plazaberrin banatzen diren opariak baino harago doa tonbola. Izan ere, sariak txartelak erabakitzen badituzte ere, benetan saritzen dena herri oso baten elkartasuna da.



- SAREEN MUNTAIA
- KONPONKETAK
- TPV/FAKTURAZIO SOFTWAREA
- INFORMATIKA EKIPOEN SALMENTA
- SEGURTASUN ETA MANTENU ZERBITZUAK

IBAI ONDO KALEA 26 · AZKOITIA · 943-02 64 28
www.etkinformatika.com · info@etkinformatika.com



ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!

Aizkibel 10 · Tel. 943 85 34 12 · 20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)
josebajatetxea@hotmail.com · www.josebajatetxea.com



ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!

Industrialdea, 56-57 · Azkoitia
943-85 13 13 · burdindegia@goiko.eus



ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!

943-85 19 66 farmaciamentiola@gmail.com
Kale Nagusia, 13 · Azkoitia



AZPIAZU

FARMACIA

Nutrizioa
Dermofarmazia
Formula magistralak
Análisi kapilarra
Odol analisiak
Lobulu perforazioa
DSP zerbitzua

ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!

azpiazu farmazia www.azpiazu farmazia.com



DEAN

**ETXEZA
TABERNA**



Ondo pasau andramaixek!



Azkoitia, mendiko zaldiaren balioa erakusteko plaza

Azkoitiko Andre Maria jaiek berrikuntza nabarmena izango dute aurren: Gipuzkoako I. Mendi Zaldi eta Behorren Txapelketa egingo dute lehen aldiz festetan. Lurgintza elkarteak antolatuta, mendiko zaldi eta behorren lana eta balioa ezagutaraztea du helburu ekintzak, baita sektoreari ikusgarritasuna ematea eta zaldi hazleen arteko topagune izatea ere. Antolatzaileen esanetan, txapelketak ikuskizuna ez ezik, mendiko abeltzaintzaren garrantzia herritarrengana gerturatzeko aukera ere eskainiko du.

IZPI OPTIKA

Optometria + Audio zentroa

ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!



Julio Urkixo hiribidea, 8 · AZKOITIA

943-85 25 11  

Balentziaga balentziaga.eus
ondo pasau
andramaixek!
NEKAZALTURISMOA



erregistro zenbakia:
KSS00186

ETXE AITZ



Kale Nagusia, 73
943-85 17 13
AZKOITIA

**ondo pasau
andramaixek!**

graphic's
graphic's
www.graphicsazkoitia.com

*Ondo Pasau
Andramaixek!!*

ERLOJUTEGIA **Gonzalo** BITXITEGIA



ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!

Kale Nagusia, 11 · 20720 Azkoitia · 943-85 24 93



14

Ostirala, 2026ko abuztuaren 7a **GUKA**



Euskal Herriko hainbat txokotan ezagunak diren arren, mendiko zaldi eta behorren txapelketak ez dira orain arte Urola Erdian antolatu. Dena den, hori aldatzera doa: izan ere, Azkoitian jokatu da Gipuzkoako I. Mendiko Zaldi eta Behorren Txapelketa. Andre Maria jaien barruan egingo dute lehia; abuztuaren 17an, hain zuzen ere, Plazaberrin, 09:30etik aurrera.

Lurgintza nekazal kooperatibak antolatu du txapelketa, eta arduradunek azaldu duteenez, aspalditik nahi zuten horrelako lehia bat egitea. Izan ere, Agurainen (Araba) ospatzen den Abere Azokan urtero egiten dute Euskal Herriko Mendiko Zaldia arrazako zaldi azienden lehiaketa; Euskal Herriko azoka zaharrenetako da Aguraingoa -630 urte baino gehiagoko historia du-.

Txapelketa hori Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak elkarrekin antolatzen dute, eta horrez gain, Bizkaiak eta Arabak beren txapelketak dituzte. Gipuzkoan Zumarragako Santa Luzia festetan izaten da mendiko zaldien txapelketa, baina Lurgintzak formatua aldatu nahi zuen Azkoitik hitzordurako: "Zumarragako erausketa moduan egiten dute, eta Azkoitikoa beste modu bateko txapelketa izango da: ring bat muntatuko dugu eta han erakutsiko dituzte zaldiak. Orain arte ez zen horrelako txapelketarik egiten Gipuzkoan, eta jendeak eskatzen zuen horrelako zerbait egitea. Formatu erakargarriagoa dela uste dugu", azaldu du Lurgintzako Julen Etxanizek.

Azkoitia izango da, beraz, Gipuzkoako lehen txapelketaren plaza, eta Etxanizek adierazi duenez, "zortea" da hori. Izan ere, dermatosi nodular kutsakorra dela eta,

behien txapelketak debekatu zituzten, eta horrek Azkoitik Blonda Txapelketa bertan behera uztea ekarri zuen, nahiz eta uztail bukaeran debeku hori altxatu zuten. "Hori horrela, bertako ganaduzaleek zaldien erakusketa egiteko asmoa zuten, eta Lurgintzako kideok txapelketa bat egiteko ideia bagenuenez, udalarekin harremanetan jarri ginen proposamena aurkezteko". Udal ordezkariak "berehala" onartu zuten proposamena, eta hala egingo dute Gipuzkoako I. Mendiko Zaldi eta Behorren Txapelketa andremarietan.

Txapelketaren lehendabiziko aldia izanda, ziurgabetasuna sentitu dutela onartu du Etxanizek: "Lehiaketak antolatzeko esperientzia badugu, eta, beraz, alde horretatik zailtzarik ez dugu izan, baina ganaduzaleak parte hartzera animatuko al ziren ez jakiteak bai sortu digula kezka. Mendiko zaldiak uda garaian

KOXKI
eraikuntzak

Auzmendi bidea, 58 - AZKOITIA
koxki@koxkieraikuntzak.com
640 39 46 36



**ERA GUZTIETAKO
ERAIKUNTZAK ETA
ERABERRITZEAK**

Ondo pasau andramaixek!



mendian ibili ohi dira, eta zaila izan daiteke haiek kalera ekartzea".

Hala ere, dena ondo joan da, eta horrenbestez, abuztuaren 17an euskal arrazako zaldiez eta behorrez gozatzeko aukera izango dute herritarrek Plazaberrin. 09:30ean hasiko da lehia, eta, guztira, hamabi parte hartzaile izango direla aurreratu dute antolatzaileek: "Dozena bat ganaduzale eta 62 zaldi eta behor izango dira".

Lehia eta festa

Mendiko zaldien eta behorren txapelketa batean, epaimahaiak animalien kalitate morfologikoa eta arraza ezaugarriak baloratzen ditu batez ere. Irizpideak txapelketaren araudiaren arabera zertxobait alda daitezkeen arren, normalean honako alderdi hauek hartzen dira kontuan: arrazaren tipikotasuna, morfologia orokorra, mugimendua eta

aurkezpena eta zaintza. "Azkenean, Euskal Herriko arrazak ezaugarri zehatz batzuk ditu, eta ezaugarri horietara gehien hurbiltzen denak eskuratuko du garaipena", adierazi du Etxanizek.

Abuztuaren 17koa azkoi-tiarrentzat zein bisitariarentzat ikuskizun ederra izan daitekeela uste dute Lurgintzakoek: "Abere horiek ezagutzen ez dituztenentzat hitzordu polita izan daiteke; izan ere, animalia ederrak dira, dotoreak, eta horiei begira, gozatu egingo dute. Hori bai, animaliak dira eta zentzuz joka dezagun; zaindu ditzagun". Ikuskizunaz harago, txapelketak mendiko zaldiaren sektoreari eta bertako arrazari ikusgarritasuna emateko ere balioko duela nabarmendu dute antolatzaileek, herritarrek sektore horretara hurbilduz. Era berean, urte guztian zehar baserrietan eta zelaietan ingurunea zaintzen ibiltzen diren pertsonak herrira gertu-

ratzeko ere balioko du hitzorduak, horiek "festaren parte" senti daitezen lagunduko du. Gainera, Euskal Herriko mendiko zaldiaren arraza galzorian dagoela gogoratu du Etxanizek: "Azken hogeitaz urteetan ganaduzaleek lan ikaragarria egin dute arraza bizirik mantentzeko, eta azken urteotan egonkortzea lortu den arren, arriskuan jarraitzen du".

Euskal arrazako zaldiaren haragia jateko egokia den arren, Euskal Herrian oso ezezaguna da. "Batik bat, Italiara saltzen da. Oso gozoa da haragia, benetan ona, eta erakunde desberdinak eta ganaduzaleak lanean ari gara Euskal Herrian bertan sustatzeko. Horrelako lehiaketetan dastatzeko eskaintzen da, eta jendeak oso harrera ona egiten dio, baina, gero, harategietan ez da saltzen. Ea poliki-poliki lortzen dugun zaldiaren haragia Euskal Herrian bertan kontsumitzen hastea".



Ostatua 50 laguntzat.
Taldea desberdinetara moldatzen gara.
Otorduak, lanerako espazioak...

abaraxka
ATERPETXEA
Taldea eta egokitutako espazioa

679 46 44 73 | info@abaraxka.eus

ondo pasau andramaixek!



telepizza

 **Julio Urkixo, 40**
Azkoitia

 **943 10 54 00**

 **Iparragirre**
Kalea 4, Urretxu

 **943 10 10 33**

ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!




ZERBITZU INFORMATIKO INTEGRALA
ENPRESA ETA PARTIKULARRENTZAT
Konponketak, mantenimendua, asistentzia teknikoa ...
intzidentzia aurrean erantzun azkarra!

ALDAKO

ondo pasau andramaixek!

Kale Nagusia, 46 • Azkoitia • 943-08 36 14 • 629 09 92 76
informatika@aldako.es





AMALUR
ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!



Julio Urkixo, 13 BIS • AZKOITIA • 943-85 12 05

orbela
JATETXEA
Aita Madinabeitia plaza
699 29 23 62





KOXKA
TABERNA
Kale Nagusia, 92
943-85 11 96

ondo pasau andramaixek!



Ondo pasau
andramaixek!



Ostalaritzarako hornigaiak
sammic.com/eu





Bost hamarkada dantzan, bailararen altzoan

Sahatsa dantza taldeak 50 urte bete ditu aurten, eta Urola Erdian euskal kulturaren erreferente bihurtu da. Ibilbide horren aitortza gisa, aurtengo Andre Maria jaien hasierako txupinazoa jaurtiko dute taldekideek.



Ondo pasau andramaiyek!

Bulego nagusia
 Larrañaga industrialdea, 1 - 20738 Urrestilla, AZPEITIA Gipuzkoa • Tel.: +34 943 15 70 50 • biele@biele.com • www.biele.com





masailaria
TooLa
943 85 25 90

ONDO PASAU
ANDRAMAIXEK!

JANDONIANIZ KALEA, 6, 20720 AZKOITIA, GIPUZKOA • 943-85 25 90





Duela mende erdi sortu zenetik, Sahatsak Urola Erdiko herriak lotu ditu euskal dantzaren bidez, belaunaldiz belaunaldi ondarea eta zaletasuna transmitituz. 50. urteurrenaren ospakizun batean, dantza taldeak aurtengo Andre Maria jaiei hasiera eman-godie txupinazoarekin, bailararen izaera eta dantzarekiko konpromisoa plaza nagusira eramanez. Hala ere, 50 urte atzera egin beharra dago euskal dantzen eta kulturaren taldeak egindako lana ulertzeko.

Urrestilla, 1976. urtea. Horiek dira Sahatsa taldearen sorrerako datu nagusiak. Garai hartako Urrestillako gazteak festaz festa ibiltzen ziren, eta bisitatzen zituzten herrietako jendea dantzan ikusten zuten, baina beraien ezin zuten gauza bera egin ez zekitelako dantzan. Hala, ikastea erabaki zuten.

Sasoi hartan, Urrestillara iritsi berria zen Felix Azurmendi apaiz gaztea, eta auzoko gazte

haiekin harreman estua egin zuen. Gazteek ez zekiten nondik hasi dantza egiten ikasten, baina Azurmendik Trintxerpen (Pasaia, Gipuzkoa) bazituen dantzan zekiten lagunak. Orduan, lagunei irakasle izateko prest egongo al ziren galdetu zien, eta baiezkota jasota, aste-buruetan Urrestillara joaten hasi ziren hango gazteei dantzan irakastera. Bailarako gainontzeko gazteei taldean parte hartzeko aukera eskaini zieten, eta, modu horretan, dantza taldeak hasieratik hartu zuen bailarako izaera. Azpeitiko nahiz Azkoitiko gazteak batuta, lehen pausoak irailean eman zituen Sahatsa taldeak, eta lehendabiziko emanaldia, berriz, martxoan eskaini zuten, Loiolako festetan.

Testuinguru berezian sortu zen taldea; izan ere, urtebete lehenago bakarrik, 1975eko azaroaren 20an, zendu zen Francisco Franco diktadorea. Heriotza hura izan zen bere diktadorearekin amaitzeko lehen urratsa, nahiz eta frankismoa ez zen berehala desagertu. Hala

ere, trantsizio politikoarekin batera aldaketa sakonak etorri ziren, eta Euskal Herrian bereziki nabarmena izan zen euskal nortasuna, hizkuntza eta ohiturak berreskuratzeko ahalegina. Helburu eta asmo horiekin ekin zion Sahatsak ere bideari. "Dena egiteko zegoen urte haietan, eta gazteak lanerako gogoz zeuden euskara eta euskal kultura sustatzeko bidean", gogoratu du taldeko kide Pello Larrañagak.

Sahatsaren sustatzaileak parranda girorako hasi ziren dantza ikasten, baina azkar konturatu ziren dantza proiektu sendo bat egon zitekeela atzean. Izan ere, gazte haiek euskal kulturaren aldeko grina bizia zuten ordurako, batik bat, etxetik eta familialtik jasota.

"Garai hartan, gu gazteak ginen, baina gurasoak saiatu ziren guri Euskal Herriko ohi-turak transmititzen, eta horrek gugan eragin nabarmena izan zuen. Ikastolen sorrera ere horren adierazle da. Gutako asko txikitatik hasi ginen dantzan; gogoan ditut oraindik Artxa-

mendi ikastolan egiten genituen saioak, eta herriz herri ibiltzen ginen dantzari txiki talde gisa. Pixka bat koskortzean, Sahatsan dantzan jarraitzea zen normale-na. Baina etxetik jasotako grina zen oinarria", adierazi du Kontxi Larrañaga kide ohiak.

Ibilbide oparoa

Dantza taldeak lehen pausoak herri txiki batean eman izana berehala nabaritu zuten, eta Urrestillan aterperik ez zutenaz, Azpeitiko Azoka Plazara mugitu zen taldea, entseguak bertako estalpean egin ahal izateko. Urte mordoak bat han igaro ondoren, Azkoitira egin zuen salto taldeak -1991. urtean, zehazki-, eta ordutik Baztartxo antzokiko gela batean dute kokaleku ofiziala.

Zaila da zenbatzea urte haue-tan taldetik igaro diren dantzari eta musikari guztiak, baina ehunka izan dira. Eta ehunka dira, era berean, eskaini dituzten emanaldiak. Bidean sortutako oroitzapenak, berriz, milaka dira, baina Sahatsako kideek

LATZ

TABERNA

KALE NAGUSIA, 55
943-85 13 19

taberna

zurt

KALE NAGUSIA, 68
943-85 12 75

ONDO PASAU ANDRAMAIXEKI!



nho
AINHOA ETXANIZ ESTUDIOA

Julio Urkixo 6, Azkoitia
943 850 973
nho@nhoestudio.com

Ondo pasau andramaixek!



ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!

Kale Nagusia, 27 • AZKOITIA • 943 85 72 34



SANTIKUA
BELARDENDA

ONDO PASAU
ANDRAMAIXEK!

KALE NAGUSIA, 28
943-85 13 40



Aingeru
loradenda

ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!

Guardia kalea 4, Azkoitia • Tel.: 943-08 37 54 - 688 81 33 46



**ondo pasau
andramaixek!**

943-08 30 32 • Kale Nagusia 81 - AZKOITIA



badituzte gogokenak. Alain Sorazu gazteak, adibidez, baditu batzuk gogoan: "Zentzu bat izan duten ikuskizunak sortu izan ditugu. *Matalaz*, adibidez, izen bereko pertsonaiaren inguruan sortutako emanaldia izan zen, eta musika, dantza eta antzerkia uztartu zituen. Horrez gain, ni gaztea naiz eta ez nuen bizi izan, baina kide askori entzun diedanez, Suitzan eskaini zuten emanaldia oso berezia izan zen".

Hala baieztatu du Larrañaga musikariak; izan ere, egindako irteera guztietatik "bereziarena" hura izan zela dio: "Bertaratu ziren ikusleek dena eman zuten gure ikuskizunean, txalo zaparrada ikaragarria jaso genuen, eta benetan markatuta utzi gintuen emanaldia izan zen. Eta, horrekin batera, Katalina Erasoren inguruko pastoral nabarmenduko nuke. Pastoral batean

parte hartzeaz gain, horrelako emanaldiek nola funtzionatzen duten eta atzean zer lan duten ikustea izugarria izan zen".

Izan ere, edozein ikuskizuneren atzean dagoen lana ezin da transmititu zuzenean, baina Sahatsako kideek jakin badakite urteetan zehar zenbat lan egin duten, eta gaur egun, oraindik, bide beretik jarraitzen dutela. "Dantzariok, azkenean, esandakoa dantzatzeko dugu, baina sorazutarrek eta Juan Luis Lizabe zuzendariak egiten duten lana ezin da hitzez azaldu", dio Kontxik. Dantzak, koreografiak, musika, jantziak... arlo asko koordinatu behar dira, baina "gustura" egiten duten lana da.

Ospakizunekin hasita

Ekainaren 14an abiatu zituen Sahatsak 50. urteurreneko ospakizunak Urrestillan, taldea-

ren sorterrian. Bertan elkartu ziren Sahatsaren hastapenetako kideak eta gaur egun taldean dantzan dihardutenak; guztira, 60 ezpata dantzari eta hainbat txistulari aritu ziren, belaunaldien arteko lotura eta taldeak bost hamarkadatan zehar ehundu duen ondarea agerian utziz.

Urteurren bereziko, gainera, egungo kideak ez ezik, aurrez ibilitakoak ere batu dira; 25 bat kide ditu gaur egun Sahatsak, eta urteurreneko saioetan eta entseguetan 60 eta 70 lagun artean biltzen dira. Horien artean dago Kontxi Larrañaga bera, edota taldearen sorrerako partaide izan ziren Julian Kortajarena eta Joxe Miel Odriozola. "Gogoz" dago jendea, eta dantzari ohi asko bertaratu dira urteurreneko emanaldietarako: "Inork ez zuen espero horrenbeste pertsona bilduko ginenik; izan ere,



"Pozik eta gustura" hartu dute berria, taldeari eta haren ibilbideari egindako "aitortza" delako. "Azkoitiko herri osoaren aurrean zerbait egin dugula aitortzea ederra da, eta polita da ikustea gurekin gogoratu direla suziria jaurtitzeko", dio Pellok.

Izan ere, reggaetoi edota doinu urbanoak nagusitzen ari diren garai hauetan, euskal kulturaren alde lanean ari direnei aitortza egitea garrantzitsua dela uste dute dantza taldeko kideek: "Sahatsa oso egoera onean dagoela esan dezakegu, baina joera garbia da; euskal ohiturak galtzen doaz. Zer pentsatua ematen du horrek, eta horregatik, txupinazoa jaurtitzeko ematen duen ikusgarritasuna izatea pozgarria da". Sahatsak garai berrietara egokitzen jakin du, eta hori izan daiteke haren osasun onaren sekretua. Adibidez, gaur egun, neskek nahiz mutilak genero bati zein besteari egokitutako dantzak egiten dituzte. "Naturalki gertatu da. Gizartearekin batera joan garela esan daiteke, eta, azkenean, pertsona bat gai bada dantza bat egiteko, zergatik ez egin? Zortez, gurean dena oso ondo doa, eta mutilen presentzia handia dugu. Historikoki Gipuzkoan dantza talde indartsuak izan direnek inbidia puntu bat agertu dute, eta zera esan izan digute: 'A zer talde ederra duzuen!'", adierazi du Larrañaga musikariak.

Sahatsaren talde giro bikainaren adierazle izango da abuztuaren 14an, andremarien hasierako ekitaldian, udaletxeko balkoira igo eta suziria piztea. "Taldekideak tragoa elkarrekin hartzeko elkartuko gara, eta falta diren denekin gogoratuko gara", adierazi dute.

Suziria jaurti eta urteurrena amaituta, ordea, zeintzuk izango dira Sahatsaren etorkizuneko erronkak? Taldekideek ez dute zalantzarik: "Euskal kultur talde gisa egin dezakegun gauzarik garrantzitsuena orain arte bezala jarraitzea da. Ez da erraza go-goaren eta beharraren arteko oreka aurkitzea, baina emanaldiak tamainan antolatuko ditugu, gehiegizko saioek eragin dezaketen nekea saihesteko".

adinean aurrera egin dugu eta kostatu egiten zaigu. Hori bai, Lizabek egurra berdin-berdin ematen digu! Giharretako mina izan, lesionatuta egon, 20 edo 50 urte izan... berdin du".

Urrestillakoaz gain, Azkoitiko San Joan suaren bueltan ere eskaini zuten emanaldia ekainean, eta uztailean, aldiz, Azpeitia Dantzan jaialdian parte hartu zuten. Ospakizunak, ordea, ez dira saio horiekin amaituko. "Taldetik igaro diren dantzariekin batera bi emanaldi eskainiko ditugu irailean, bata Azpeitian eta bestea Azkoitian, eta bi saioetan urte hauetan guztietan egin ditugun emanaldi desberdinetako atalak erakutsiko ditugu. San Andres festetan ere izango gara, abesbatzarekin eta Udal Musika Bandarekin batera. Saio horretan gaur egungo ki-

deek bakarrik parte hartuko dugu, eta 50 urte hauetako pintzelkadak agertuko ditugu. Eta emanaldi bera eskainiko dugu Azpeitian, baina 2027. urtean. Era berean, erakusketak bat ere ari gara prestatzen, bi herrietan ikusteko aukera izango dena", azaldu du urteurreneko ospakizunak antolatzeke taldean dabilen Sorazuk. Urteurren borobilari amaiera emateko, berriz, 2027ko martxoan berriro Loiolara itzultzeko asmoa dute, "sorrerari eta lehen emanaldi hari keinu garbia eginez".

Suziria, ginga

Pastel zapoetsu baten gingham gisan, abuztuaren 14ko eguerdian Azkoitiko udaletxeko balkoitik festei hasiera emango dien txupinazoa jaurtiko dute Sahatsako kideek.

arGia
osasunaren heziketa integrala

ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!

628 740 789 info@argiazentroa.com
www.argiazentroa.com



Juin kalea, 4, Azkoitia - 943 89 94 47
www.azkoitiabhi.hezkuntza.net

ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!

AZKAUTO



ONDO PASAU
ANDRAMAIXEK!!

Juin, 1. AZKOITIA • 943-10 83 99 • 663 92 99 92
azkauto.eurotaller@gmail.com

B travel
Bidaia bizitza

ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!

Guardia kalea 3, behe
943-85 70 68 • azkoitia@btravel.com



TABERNA

ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!

KALE NAGUSIA, 95 • 943-85 28 88



AGAKo kideak kalejiran, iazko txupinazoaren ondoren.

Festari suziria, aldarrikapenei ahotsa

Jaiei hasiera ofiziala emateko udaletxetik botatzen duten txupinazoa baino ordubete lehenago, San Martin auzoan lehertu ohi da beste suziri bat. Azkoitiko Gazte Asanbladaren txupinazo alternatiboak festa eta aldarrikapena uztartzen ditu, jaietan ere herrian zein nazioartean pil-pilean diren gaiak mahai gainean jarrita.



EROSKI

zurekin

kalitate onena
prezio onenean

ondo pasau andramaixek!



Azkoitiko andremarietan badira urteen joanarekin sendotu diren ohiturak, eta horietako bat da Azkoitiko Gazte Asanbladaren (AGA) txupinazo alternatiboa. Udaletxeko balkoitik suziria jaurti baino ordubete lehenago, San Martin auzoan elkartzen dira dozenaka lagun festei hasiera emateko, baina baita mezuak eta aldarrikapenak plazaratzeko ere. Festa eta protesta uztartzen dituen hitzordu hori urtez urte lekua egiten joan da egitarau ez ofizialean, eta herritar hainbatentzat dagoeneko jaietako lehen ekitaldia bihurtu da.

Gazte Asanbladak duela lau urte hartu zuen txupinazo alternatiboa antolatzeko ardura, baina hitzordu horrek ibilbide luzeagoa du. Aurretik beste hainbat eragilek jardun zuten horretan, herriko jaiak ofizialki hasi baino lehen herritarrei elkartzeko eta aldarrikapenak kaleratzeko aukera eskaintzen, alegia. Antolatzailen esanetan, belaunaldiak eta antolatzailak aldatu diren arren, ekimenaren funtsak bere horretan jarraitzen du; hain zuzen ere, txupinazoa, ospakizunerako une bat izateaz

gain, hausnarketarako eta sakelaketarako gune bat izatea ere nahi dute. "Udalaren ekitaldi instituzionalez gain, herriko gazteek antolatutako gune eta espazio propioak beharrezkoak zirela ikusten genuen, jaiak eta aldarrikapenak uztartzeko helburuarekin. AGAko kideok asmo horrekin hartu genuen txupinazo alternatiboaren ardura", agertu du taldeko kide den Ekaitz Albertek.

Txupinazoaz baliatzen dira norbait omentzeko edota unean-unean puri-purian diren aldarrikapenei eta borrokei ikusgarritasuna emateko. Horrela, "elkartasuna, autogestioa, auzolana, parte hartzea eta antolakuntza kolektiboa" dira helarazi nahi dituzten balio nagusiak. Festei hasiera modu herrikoi eta parte hartzailean ematen diete, omenaldi eta guzti. Urtean zehar izandako ekimen edo afera garrantzitsuak nabarmentzen dituzte, eta aurten, Azkoitiko Gaztetxea lortu izana eta lan baldintza duinen aldeko aldarrikapena izango dira horiek. "Gaztetxeko kide batek eta etxez etxe zaintza lanetan ibiltzen den emakume batek jaurtiko dute txupinazoa, alde batetik, gaztetxea lortu izana zoriontzekoa delako, eta gazteok

gure beharrak eta interesak asetzeko jarduerak antolatzeko oso gai garela erakutsi dugulako, eta bestetik, etxez etxekoen lan baldintzak oso eskasak direlako", esan du Albertek.

Urtez urte txupinazo alternatiboa gero eta jende gehiagorengana iristen ari denaren sentazioa dute Gazte Asanbladako kideek, eta gustura ageri dira, festak beste modu batera biziitzeko aukera eskaini nahi baitu-

AGAk duela lau urte hartu zuen txupinazo alternatiboa antolatzeko ardura

Festei hasiera modu herrikoi eta parte hartzailean ematen diete

te. AGAk aurten lortu du gaztetxea izatea, zehazki martxoan, Julio Urkixo kalean garai batean Lidl saltokia egon zen eraikinarengoiko solairua okupatuta, eta han egin duten lana horren adierazle dela uste du Albertek. "Pertsona askoren parte hartzeari esker, mota desberdinetako jarduerak antolatzen ari

gara bertan. Gainera, bermatu ditzakegu jai seguruak, errespetuan oinarritutakoak eta erasorik gabekoak, eta giro oso ona sor dezakegu".

Giro ona eta segurua dira AGAren oinarriak. San Martin auzoan jaurtitzen dute suziria, hamaiketako egiten duten bitartean, eta ondoren, trikiti doinuek lagunduta kalejiran joaten dira herriko plazara, festan jarraitzeko asmoarekin, eta hala nahi duenak, udaletxeko txupinazoa ikusteko aukera izaten dute. "Gure txupinazoa alternatiba bat da; egiteko modu eta ikuspegi guztiz desberdinak dituzte bi suziriek. Gureak herri mugimendua, autogestioa eta parte hartzea ditu oinarrian, baina ez dugu antolatzen udalaren txupinazoaren kontra egiteko ekimen bat bezala; izan ere, herriko festetan era askotako proposamenak izatea aberasgarria dela uste dut. Gaztetxearen harira udalarekin desadostasunak ditugun arren, gure helburua ez da errua udalari botatzea; gure asmoa da gazteek eta horren gazteak ez direnek ikustea hor gaudela, beste erakunde bat garela, espazio bat dugula eta espazio horrek herriari ekarpen handia egin diezaikeela".

Horretarako, lan eta bilera

asko egiten dituzte aurreko hila-beetan, gauza asko erabaki eta antolatu behar izaten dituztelako: txupinazoa prestatzea, txosnak, musika, materiala, mezuak... "Zorionez", ondo koordinatuta egiten dute lana: "Ez dira data oso onak, oporrak izaten baitira tartean, eta gainera, ez gara beti pertsona kopuru berdina ibiltzen antolaketa lanetan. Hala ere, denon parte hartzearekin eta kudeaketa egokiarekin, dena ondo joaten da. Urtez urte, gainera, gero eta gazte gehiago izaten dira prest antolaketa lanetan aritzeko, eta lan handia izaten den arren, dena txukun kudeatzen dugu".

Txosnaguneko aukera

Txupinazo alternatiboa ez da AGAk andremarietarako prestatzen duen ekimen bakarra. Aurten ere haien esku egongo da txosnagunea, eta hainbat egunetarako kontzertuak, DJ saioak eta bestelako ikuskizunak antolatu dituzte. Helburua da jaietako eskaintza osatzea eta gazteei nahiz herritar guztiei elkargune bat eskaintzea, musika, kultura eta giro parte hartzailea uztartuta.

Abuztuaren 14an, San Martinen txupinazoa bota ondoren, plazara jaitsiko dira kalejiran, eta ordurako karropoteoa eta arratsalderako DJ saioak prestatu dituzte. Andre Maria egunean, bi kontzertu izango dira txosnagunean; abuztuaren 16rako, Gazte Egunerako, bermuteo musikatua antolatu dute lehenbiziko aldiz; hila- ren 17rako, mus txapelketa; eta 18rako, beste berrikuntza bat: kontzertuen ondoren, herritarrek aukera izango dute gustuko dituzten abestiak proposatzeko.

Azkoitiko Gazte Asanbladak txupinazo alternatiboan nahiz txosnagihoan parte hartzera animatu ditu azkoitiarrak.



OSASUNA MODU INTEGRALEAN ULERTZEN DUGU.
ALDE FISIOKO-ESTRUKTURALETIK HASI ETA
SAKONERAINO HELDUZ, BARNEKO MUNDU
EMOZIONALERAINO

Loratzen
OSASUN-ZENTROA

Jandonianiz kalea, 5 • Azkoitia • loratzen.oz@gmail.com • 623 16 68 17



Ondo pasau andramaixek!





Kuadrillen txanda

Abuztuaren 18ak jaietako irudirik berezienetakoak uzten ditu urtero. Askotariko alkondarak janzten dituzte kuadrilletako kideek, eta kolore biziz betetzen dira kaleak.

A

buztuaren 18a egun berezia izaten da Azkoitian: izan ere, Kuadrillen Eguna ospatzen dute jaietako azken egunean. Goizetik gauera arte lagunartea, giro aparta eta festa izaten dira nagusi, eta bada eguna berezi egiten duen eta egun horretako ikur bihurtu den elementu bat: alkandora. Kuadrilla bakoitzak berea jantzi ohi du, kalei aparteko kolorea emanez.

Kolore, marrazki edota mezu originalaz apaindutako alkandorek eta kamisetek nortasuna ematen diete kuadrilla bakoitzari, eta, aldi berean, plaza eta kaleak kolorez eta alaitasunez betetzen dituzte. Bereziki ikusgarria izaten da egun horretan egiten den herri bazkaria; izan ere, ehunka lagun elkartzen dira plazan eta hango arkupeetan, mahaiairen bueltan, eta alkandora koloretsuei esker mosaiko erraldoi bat osatzen da.

Urteak igaro arren, bizirik dirauen ohitura da Kuadrillen Egunkoa. Belaunaldi berriek ere beren egiten dute usadioa, eta kuadrilla asko hilabete batzuk lehenango hasten dira alkandora perfektuaren bila. Egun batez, kuadrillaren izaera eta adiskidetasuna azalerazten dituzte herritarrek, andre-marietako irudirik berezienetako bat sortuz.

Paella, bazkaltzeko

Egun hori izaten da andremarietako azkena, baina egun guztiko festa egitaraua izaten dute jaiak agurtzerako. Azkoitiko plaza mahai erraldoi bilakatzen da eguerdi partean, kua-



drilla hainbatetako kideak han biltzen baitira bazkaltzeko. 1986az geroztik udalak antolatzen duen herri bazkariaren bueltako milaka oroitzapen dituzte herritarrek, baita lehenagokoak ere, nahiz eta aurreko urteetan kuadrilla bakoitzak bere jaiak eramaten zituen plazara bazkaritarako.

Gaur egun, 1.400 lagun inguru esertzen dira plazan mahaien bueltan. Eguraldiak laguntzen ez duen kasuetan, Berdura Plazan eta arkupeetan elkartzen dira herritarrek, eta horrenbestez, euriak ere ez du zapuzten festa. Aipatzeko modukoak dira bazkariaren bueltako zenbakiak: 130 kilo arroz, 220 kilo txorizo eta oilasko, saiheski nahiz txerri saiheski kilo ugari. Paella izan ohi da herri bazkariko protagonista. Eta paella prestatzeak badu bere lana: horretaz arduratzen dira hamar bat boluntario, eta horiek bi ordu eta erdiz aritzen dira suaren bueltan lanean.

Herritarrek urte guztian egoten dira egun horren zain. Paella garrantzitsua da, baina haren bueltako osagaiak ere bai: kuadrilla, jai giroa eta festarako gogoia. Ez da plan txarra festei agur esateko.

Hona hemen iazko abuztuaren 18ko irudi batzuk:



JAUREGUI

ondo pasau andramaixek!

Julio Urkixo etorbidea13, AZKOITIA | 943-85 19 61
larramendijauregui@gmail.com | www.larramendijauregui.com



GOIKO

ZURE BURDINDEGIA

ondo pasau andramaixek!

Industrialdea, 56-57 • Azkoitia
943-85 13 13
burdindegia@goiko.eus

DEWALT

Wera
BE A TOOL PERU!



ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!
 Aingeru kalea 7 AZKOITIA
 943-08 38 30 672 973 470
 nkileapaindegia
 NK Ileapaindegia





ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!



ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!



ondo pasau andramaixek!
www.ormola.com
ormola@ormola.com
 943-85 13 00
 Basarte industrialdea 5, Azpeitia



26

Ostirala, 2026ko abuztuaren 7a **GUKA**

Kontzertuak herriko musikarien esanetan

Andremarietako gauak musikaz beteko dira aurten ere. Udalak antolatuta, sei kontzertu izango dira herriko plazan. Baina zer iritzi dute hitzordu horien inguruan herriko musikariek?

JANUS LESTER, ABUZTUAK 14

ION LARRAÑAGA. Janus Lester 2022an Beran (Nafarroa Garaia) Jokin Pinatxok sortutako musika taldea da. Zazpi kidek osatzen dute: Jokin Pinatxo (ahotsa eta gitarra), Garazi Esnaola (teklatura), Mattin Arbelaiz (bateria), Andoni Arriola (tronboia), Julen Suarez (tronpeta), Javi Etxarri (gitarra) eta Julen Barandiaran (baxua). Taldeak zuzenekoan pop elektronikoa, rock alternatiboa, folka eta soul ukituak uztartzen dituen ikuskizun bizia, zaindua eta energiaz betea eskaintzen du, eta kontzertuetan



estudioko kanta indar handiko pieza bihurtzen dituzte musikariek. Hau da, talde oso baten laguntzaz eta ahots interpretazio bikainarekin, une alai eta dantza-garriak zein pasarte intimo eta hunkigarriak txandakatzen dituen emanaldia eskaintzen dute. Gehienbat euskaraz interpretatutako erreperatorioan, *Ez gaitzala loak harrapatu*, *Minutuak*, *Dap Dap*, *Bi begi bi lore* eta *Nola hartu arnasa* bezalako abestiak entzun ahal izango dira. Gainera, Janus Lester zerbaitegatik nabarmentzen bada, publikoarekiko erakusten duen gertutasunagatik eta 90 minutu inguruko esperientzia zirraragarriagatik da. Emozioa, erritmoa eta kalitate artistiko handia uztartzen dituen ikuskizuna izango da.

LA OTRA OREJA, ABUZTUAK 15

CARLOS MUÑOZ. Proposamen oso interesgarria iruditzen zait La Otra Orejarena. Izan ere, belaunaldi oso bat markatu zuten abestiak eskainiko ditu taldeak, baina, aldi berean, gaur egungo publikoarengana ere iristen direnak. Horrek erakusten du abesti on batek ez duela iraungitze datarik. Gainera, erreperatorioak freskotatzen handia dauka. Melodiak oso erakargarriak dira, eta kantu guztiak elkarren artean oso desberdinak dira, nahiz eta guztietan taldearen nortasuna eta esentzia berehala antzematen diren. Badituzte kantu alai eta dibertigarriak, baina baita sentikorrak eta hunkigarriak ere. Beraz, ziur nago plazan adin askotako jendea bilduko dela. Jatorrizko taldea gustatzen zaion edonori guztiz gomendatuko nioke emanaldira joatea. Begiak itxita zein irekita, benetako La Oreja de Van Gogh ikusten eta entzuten ari zarela ematen du. Oso maila handiko emanaldia eskaintzen dute, eta publikoari esperientzia bikaina oparitzen diote.



BENGO, ABUZTUAK 16

CHECK BOYZ. Bengo artistaren atzean, Aitor Bengoetxea oiartzuarra (Gipuzkoa) ezkututzen da. 2021ean argitaratu zuen bere lehen lana, *4 Taupada* izenekoa. Trap edo pop urbanoa egiten du musikariak, batik bat, eta break dantzaria ere bada. Azkoitiko kontzertuan ez dakigu dantzarik egingo duen, baina zuzeneko emanaldi batzuetan egin izan du. Gazteei zein helduei zuzendutako saioak eskaintzen ditu, eta abuztuaren 16an Azkoitiko plazara gerturatzen direnek ikuskizun ederraz gozatzeko aukera izango dute.







642 36 60 06

- ELEKTRIZITATE OROKORRA
- TELEKOMUNIKAZIOAK
- INDUSTRIA MANTENUA
- LED ARGIZTAPENA

ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!



SUKENA, ABUZTUAK 16

ITXASO ALBERDI. Sukena taldea Oñatin (Gipuzkoa) sortutako pop-rock musika taldea da. Sei gazte dira guztira: gitarra elektrikoa, baxu elektrikoa, bateria, gitarra akustikoa, akordeoia eta ahotsa dituzte taldean. Oraingo, disko bakarra dute, duela hiru urte argitaratutakoa. Sukena taldeko Eider eta Naia ahizpek eman zioten hasiera proiektuari, eta taldearen izena bi ahizpen amonak urtero Saharatik ekartzen zuen umearen amaren izena da. Aurtan hainbat kontzertu eman dituzte, baina, taldekideekin hitz eginda, Azkoitiko kontzerturako gogotsu daudela esan didate, udako giro politagatik, eguraldi onagatik eta jai giro ederragatik. Dena emateko prest daude, lehen aldia baitute Azkoitian.

ENAITZ ETA ERKIZI, ABUZTUAK 17

AINZANE AGIRREBEÑA. Beste hitzorduekin alderatuta, zerbait desberdina izango da Enaitz eta Erkiziren emanaldia, kontzertua izan beharrean, erromeria izango baita. Beste bikote batzuk izan dituzten arren, azken urteetan biak batera dabilta plazaz plaza, eta bikote oso polita osatzen dute. Trikitilari gazteak dira biak, 20 urte inguru dituzte, baina txikitatik dute trikitiarekiko zaletasuna, eta eskaintzen dituzten erromerietan fandango eta arin-arin biziak entzun ahal izaten dira. Jendeari dantzarako abagunea ematen diote. Era berean, rantxerak edota helduta dantzatzeko kantak ere izango dira. Dantzarako ez ezik, entzuteko ere saio polita izango da, oso ondo abesten dutelako. Trikitilarien sehaska dela esan ohi da Azkoitia, eta aberasgarria da festetan horrelako saioak egotea.



TXAPELA BRAVA, ABUZTUAK 18

XABIER ETXANIZ. Mexikotik datozen rantxerak eta korridoak Euskal Herrian ia-ia musika herrikoi badira ere, Txapela Brava taldeak doinu horien bertsioak egiten ditu eta horiei euskal izaera gehitzen die. Jendeak ezagutzen dituen doinuak dira eta jai giroan horrek asko laguntzen du. Kontzertua parrandarako eta belaunaldi ezberdinak batzeko paregabea izango dela esango nuke. Kuadrillen Eguna, gainera. Zer gehiago behar da bada festei amaiera ona emateko?





Ikasi group

Ondo pasau andramaixek!

Juintxiki industrialdea, 11-12 | 20720 Azkoitia
943-85 70 44 | 943-85 70 41 | mkt@ikasi.eus | www.ikasi.eus



ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!

Jandonianiz kalea 7-Azkoitia

943-85 12 35

641 288 401

@geretafarmazia



ARRIETA

DOITASUNEZKO MEKANIZAZIOA

ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!

Juin Txiki industrialdea, 1-2-3 - Azkoitia • 943-85 26 93 • arrieta@talleresarrieta.com



Lopetegi

ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!

Trenbidearen Zumardia, 15 • 943-85 23 85
lopetegi.iturgintza@gmail.com

ALCIBAR








Ondo pasau andramaixek!

Txerloia auzoa, 5 • 20720 Azkoitia (Gipuzkoa) 943-85 05 08 670 085 085 postventa@alcibar.volkswagen.es



Andremariak ospakizunetarako, topaketarako eta gozamenerako egunak dira, baina baita errespetua, zaintza eta elkarbizitza sustatzekoak ere. Horregatik, Azkoitiko Udalak berdintasuna, prebentzioa eta inklusioa ardatz dituzten hainbat ekintza prestatu ditu aurtengo jaietarako, indarkeria matxistaren eta LGBTIfobiaren aurkako mezua indartzeko eta jaiak herritar guztientzat seguruak eta atseginak izateko.



**Ondo pasau
andramaixek!**



Azkoitiko Udaleko Berdintasun sailak berriro ere martxan jarri du Andre Maria jaietarako *Ondo pasau, ondo pasau... pasatzeke!* kanpaina. Azken urteetan erabili izan duen leloak udalak zabaldu nahi duen mezua laburbiltzen du: jaiak askatasunez, errespetuz eta indarkeriarik gabe bizitzea aldarrikatzen du. Horri lotuta, aurten ere *Festak berdintasunin* mezua izango da kanpainaren ardatzeta-ko bat.

Kanpaina herritar guztiei zuzenduta dago, baina, urtero bezala, arreta berezia eskainiko diote

ostalaritzaren sektoreari. Horretarako, tabernariei gutun bat bidaliko diete kanpainarekin bat egin dezaten eta udalak prestatutako kartelak ikusgai jar ditzaten eskatuz. Kartelek indarkeria matxista edo LGTBIfobia kasuren bat bizi izandakoan laguntza eskatzeko telefono zenbakiak jasotzen dituzte, eta sentsibilizazio lanak, kalean ez ezik, festetako egitarauan ere izango du bere lekua.

Aurtengo berrikuntzetako bat da kanpainaren irudia daramaten 2.500 edalontzi berrerabilgarri izango direla. Iaz eguzkitako bertaurrekoak banatu zituzten, eta aurten edalontziak izango dira protagonista. Edalontziek loka-

rria izango dute lepoan zintzilik eramateko, eta bertan *Festak berdintasunin* mezua irakurri ahal izango da. Banaketa bi egunetan egingo dute: abuztuaren 13an, 18:00etatik 19:00etara, Kontzejupean; eta abuztuaren 18an, herri bazkarian.

Edalontzien diseinuan ortzadarraren koloreak erabili dituzte. Izan ere, udala LGTBIQ+ Tokiko Plana lantzen ari da, eta kanpaina honen bidez kolektiboari ikusgarritasuna eman eta aniztasunarekiko konpromisoa adierazi nahi izan du erakundeak.

Prebentzioaren alorrean ere hainbat neurri hartuko dituzte jaietan. Abuztuaren 14an, 16an eta

18an Gune Morea jarriko dute elizatarian. Horrez gain, abuztuaren 14an drogen azterketa zerbitzua eskainiko dute, eta abuztuaren 16an eta 18an alkohol kontsumoarekin lotutako arriskuak murrizteko informazio eta aholkularitza zerbitzua izango da. Hilaren 14an eta 16an, 23:30etik 02:30era izango da zerbitzua indarrean, eta abuztuaren 18an, 21:30etik 00:30era.

Udalak azpimarratu du badakie- la alkoholaren eta bestelako substantzien kontsumoa ez dela erabat desagertuko festetan. Hala ere, prebentzioaren bidez, arriskuak gutxitzea eta kontsumo arduratsuagoa sustatu nahi dituztela adierazi du.



aholkulariak

UNANUE

ZERGAK | LABORALA | AUDITORETZA | ENPRESA ETA AUTONOMOAK

ondo pasau andramaixek!

Kale Nagusia, 58, AZKOITIA | Tel.: 943-85 07 69

Erribera kalea 6, ZUMAIA | Tel.: 943-86 09 60 | unanue@unanue.eus | www.unanue.eus



TABERNA AZKOITIA
ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!
 943-853639 @gureafrontoia_azkoitia

LUKAS
 lurrindegia
Ondo pasau andramaixek!
 Julio Urkixo 10 • 943-85 16 10 747-48 80 84
 lukaslurrindegia@hotmail.com @lukaslurrindegia



ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!



ORAIN gure baserriko barazki ekologikoak.

- Prestatutako barazki-poltsak
- Igande goizetan ere irekita: 08:00-13:00

makibar
ondo pasau andramaixek!
 Altzibar etorbidea, 17 • 943-53 37 52

Larrialdietarako 112	Urola Kostako Ertzaintza 943 08 37 80
Udaltzaingoa 943 85 71 71	Indarkeria matxista 900 840 111 / 016
HARIBERRI sexu indarkeriari arreta integrala 900 840 188	
LGBTIfobia 028	Arraza edo etnia diskriminazioa 021

Horrez gain, Berdintasun saila bideo bat prestatzen ari da sentsibilizazioa sustatzeko. "Bideo horrekin festa giroan gertatzen diren jokabideak eta erasoak azaleratu nahi izan ditugu, batik bat parranda giroan gazki egiten ditugun edota nahi gabe barneratuta ditugun ohituren aurrean kontzientzia pizteko asmoz", azaldu du erakundek. Bideoa udalaren sare sozialetan zintzilikatuko dute, eta abuztuaren 15eko gauean izango den Film Laburren XIV. Lehiaketako lanen emanaldiaren aurretik eman go dute pantaila handian. Berdintasun saileko zinegotzi Mertxe Zubillagaren hitzetan, "festa giroak askotan gizalegezkoak ez diren jokabideak erraztu egiten ditu, besteak beste alkoholaren edo bestelako drogen kontsumoa areagotu egiten delako". Horren aurrean, udalaren mezua argia

da: "Festa berdinzaleak eta inklusiboak nahi ditugu. Indarkeria edo diskriminazio adierazpen guztiak onartezinak dira. Horregatik, prebentzio eta sentsibilizazio lana egitea ezinbestekoa da nahi ez ditugun egoerak saihesteko eta guztiok herriko jaiez askatasunez gozatzeko. Beti diogun moduan, 'ondo pasau, ondo pasau... pasatzekel'".

Tratu Onaren aldeko plana
 Berdintasun politikatetik harago, aurtengo beste berrikuntzetako bat da udala Tratu Onaren aldeko Tokiko Plana lantzen ari dela, haur eta nerabeen oinarritzko eskubideak babestu eta haien ongizatea sustatzeko. Horren harira, aurtengo festetako egitarauan haurrei zuzendutako ekintzetan planaren irudia identifikatzeko sortutako logotipoa txertatu dute.

Planaren helburua da haurrak eta nerabeak ingurune seguru, babesle eta afektibo batean haztea, errespetua, konfiantza, entzutea, parte hartzea eta zaintza oinarri izango dituen ingurune batean. Logotipoaren bidez, gainera, haurren eta nerabeen ahotsari balioa eman nahi dio udalak, baita haien protagonismoa indartu ere.

Barraketan, ordu isila
 Aniztasun sentsoriala kontuan hartuta, festek irauten duten bitartean, barraketan 18:00etatik 19:00etara ez dute musikarik jarriko. Neurri horren bidez, soinu estimulu gutxiagoko tarte bat eskaini nahi diete hala behar duten haur, gazte eta familiei, denek ere jaiez modu erosoagoan gozatzeko aukera izan dezaten.

HEZKUNTZA-ESKAINITZA EZ ARAUTUA
ARRATSALDEZ ETA GAZTELANIAZ

PROFESIONALITASUN ZIURTAGIRIAK

- Behe-tentsioko instalazio *
elektrikoak muntatzea eta mantentzea
- Mendeko pertsonen
gizarte-erakundeetan
gizarte- eta osasun-arreta ematea

BERRIA!

C GRADUAK

- Fabrikazio mekanikoko mekanizazio- eta konformazio-prozedurak eta prozedura bereziak gauzatzea
- Arotzeriako eta altzarigintzako muntaia



IZARRAITZ
 Lanbide Heziketa
Guztiona, guztiontzat!

ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!

NIK

hik, hark, denok

GUKA EGITEN DUGU



Tomas Lizarazu /
Abeslaria

Azkoitia

**ZUK ERE
EGIN GUKA**
egin bazkide

Guka independentea da
eta komunitatean du
oinarria. Herritik eta
herriarentzat sortua izanik,
aurrera egiteko, guztion
babesa eta lankidetza
ezinbestekoak dira.

GUKA

Eskaneatu QR-a, eman zure babesa





ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!

AEROTERMIA

BIOMASA

**EGUZKI ENERGIA
TERMIKOA**

**UR BERO
SANITARIOA**



BEROKUNTZA